

## HEFA Fakultatearen Kalitate Politika 2023-2025

Fakultateko Kalitate Batzordeak onartua (2023/10/18)

Fakultateko Batzarrak onartua (2023/10/24)

---

UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia (HEFA) Fakultateak hurrengo bi urteetan inplementatu nahi duen Kalitate Politika zehaztuko dugu dokumentu honetan. Zehatzago esateko, HEFA Fakultateak, bere eskura dituen eskumenen eta baliabideen arabera, kalitatearen, hobekuntzaren eta berrikuntzaren kudeaketan lortu nahi lukeen horri buruz duen ikuspegia eta konpromisoa azalduko ditugu. Dekanotza Taldeak diseinatutako Kalitate Politika da, hasiera batean, baina, ondoren, HEFA Fakultateko Kalitate Batzordeak eta Fakultateko Batzarrak onartu zuen, 2023ko urriaren 18an eta 2023ko urriaren 24an, hurrenez hurren.

Unibertsitate ikasketak Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko prozesuaren testuinguruan, UPV/EHUren *Estatutuak*<sup>1</sup> eta *Plan Estrategikoa 2022-2025*<sup>2</sup> dokumentuen irizpideekin eta ENQA (European Association for Quality Assurance in Higher Education) erakundearen *Standards and guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)*<sup>3</sup> dokumentu markoarekin bat eginik, adierazi nahi du hemen HEFA Fakultateak kalitatearen kudeaketarekin duen konpromisoa. Zehazki, honako zehaztapen hauetatik abiatzen da:

### UPV/EHUren Estatutuen 1. artikulua:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Erakunde autonomiaduna da, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, bai eta ondare propioa ere. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntza, eta bere jardueren oinarri diren kudeaketa prozesuak eta zerbitzuak. UPV/EHUK bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. Bestalde, euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturelek ekarritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki. Era berean, ekonomia, gizarte eta ingurugiroaren jasangarritasunerako irizpideei jarraiki eramango ditu aurrera eguneroko zereginak.

---

<sup>1</sup> [https://www.ehu.eus/documents/3026289/3045926/Estatutos\\_UPV\\_EHU.pdf](https://www.ehu.eus/documents/3026289/3045926/Estatutos_UPV_EHU.pdf)

<sup>2</sup> [https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU\\_PLAN+ESTRATEGIKOA\\_2022\\_2025.pdf/16556f80-4045-8abc-443d-4c41bdeb1df4?t=1655464452913](https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGIKOA_2022_2025.pdf/16556f80-4045-8abc-443d-4c41bdeb1df4?t=1655464452913)

<sup>3</sup> [https://www.enqa.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish\\_by%20ANECA.pdf](https://www.enqa.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish_by%20ANECA.pdf)

## **UPV/EHUren Plan Estrategikoa 2022-2025:**

### **Eginkizuna**

UPV/EHU euskal unibertsitate publikoa da, eta konprometita dago euskal kulturarekin, gizarte erronkekin eta garapen jasangarriarekin, prestakuntzaren, ikerketaren, ezagutzaren transferentziaren eta toki nahiz mundu mailako aliantzen bidez, jakintzaren adar guztietan.

### **Ikuspegia**

- UPV/EHUK bere ikasleei ematen dien prestakuntza ikerketan eta pentsamendu kritikoan oinarrituta dago, metodo zientifikoa erabilia. Garapen jasangarriarekin inplikaturik dagoen prestakuntza da. Unibertsitateak aukera ematen die ikasleei beren buruak intelektualki eta giza ikuspegitik garatzeko, eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna eskuratzen dute, modu etiko batean eta sormena erabilia, gero eta zorrotzagoa den ingurune aldakorrean.
- UPV/EHUK bere ikerketa eredua indartu nahi du, gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen arloetako erronka berrietara orientatua eta erronka horiekin konprometitua, Diziplinaz gaindiko eta nazioarteko lankidetzak sustatuz, baita ingurumen sozioekonomikoarekiko lankidetzak ere, jakintzaren bidez gizarte eraldaketan lider izateko bokazioarekin.
- UPV/EHU, Euskadiko erakunde ikertzaile nagusia izanik, aliatu natural gisa identifikatzen da trantsizio digitalaren, trantsizio energetikoaren eta kohesio digitalaren desafioei aurre egiteko lurraldean garatzen diren I+G+b proiektuetan.
- UPV/EHU bere inguruan sustraitutako unibertsitatea da, irekia eta iragazkorra, eta bi norabideko inpaktua eragiteko helburua du: erreferentzia eta identifikazio eredu izan nahi du euskal gizartearentzat.

### **ESG - Parte 1: Criterios y directrices para el aseguramiento interno de la calidad**

Criterio 1.1 Política de aseguramiento de calidad. Las instituciones deben tener una política pública de aseguramiento de la calidad que forme parte de su gestión estratégica. Los grupos de interés internos deben desarrollar e implantar esta política mediante estructuras y procesos adecuados, implicando a los grupos de interés externos.

Aipatu irizpideak aintzat hartuta, HEFA Fakultatearen Kalitate Politikak eta, beraz, fakultateko eguneroko kalitatearen kudeaketak azpiko lau ildoek markatutako norabidea izango du:

1. Prestakuntza eta ikerketa.
2. Gizartearekiko erantzukizuna.
3. Hobekuntza eta garapena.
4. Pertsonak.

## **1. Prestakuntza eta ikerketa**

### **Helburuak:**

- HEFA Fakultatean eskaintzen diren gradu eta graduondokoetan prestatzea euskal gizartearen premietara egokituko diren profesional kualifikatuak eta pertsona arduratsuak.
- HEFAko graduen eta graduondokoen eskaintza, nagusiki euskaraz izatea eta, aldi berean, hainbat esparrutan eleanitza, jasangarria eta kalitatezkoa.
- Ikerketaren eta irakaskuntzaren arteko harremana indartzea, areagotuz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan metodologia berritzaileen erabilera.
- Etengabeko prestakuntza programak diseinatzea, bideak irekiz hainbat gizarte esparrutako prestakuntzaren eta ikerkuntzaren alorretan sortzen ari diren premia berriei eta eskaerei erantzuteko.
- Ikerketa proiektuak babestea eta HEFAn kultura zientifikoa sustatzea, batez ere, ikertzaile berriekin eta beren burua prestatzen ari diren pertsonekin.

## **2. Gizartearekiko erantzukizuna**

### **Helburuak:**

- Sustatzea garapen jasangarriaren, inklusiboaren, euskararen normalizazioaren eta gizarte eleanitzaren, eta aukera berdintasunaren aldeko politikak eta praktikak.
- Sare akademiko, sozial eta instituzionaletan parte hartzea eta gizarte eragileekiko harremanetan pausoak ematea aliantza politikak sistematizatzeko aldera.

## **3. Hobekuntza eta garapena**

### **Helburuak:**

- Fakultateko esparru guztietan (antolakuntzan, kudeaketan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan) garatzea etengabeko hobekuntzarako edota berrikuntzarako ekimenak eta proposamenak.

- Horretarako, pertsona inplikatuari kalitatearen eta berrikuntzaren gaietan formazioa eskaintzea eta fakultateko kideen parte hartzea bultzatzea.
- Fakultateko titulazioetan berrikuntzaren eremuan lan egiteko esparruak sor daitezzen, Dekanotza Taldeak egiturazko babesa eraikitzea.
- Azpiegitura fisikoak eta teknologikoak fakultatean gauzatzen ditugun hobekuntzetara eta berrikuntzetara etengabe egokitzea.
- HEFA osatzen duten bi eraikinen kudeaketa-sistema bateratzen jarraitzea eta, bereziki, bi eraikinen egiteko moldeetan kudeaketa-sistema bateratua integratzea.
- Kudeaketa administratiboa arinagoa, hurbilagoa eta gardenagoa izan dadin sustatzea, gobernantza eredu partehartzaileagoa garatuz.

#### 4. Pertsonak

##### Helburuak:

- Ikasleen, TEKAZELeko langileen eta irakasle/ikertzaileen beharrak eta espektatibak ezagutzea eta haiek asetzen saiatzea.
- HEFAko ikasleei eta irakasle/ikertzaileei beren ibilbide akademikoa garatzen laguntzea (ikaskuntzan, irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan).
- TEKAZELeko langileei beren ibilbide profesionala garatzen laguntzea.

Dekanotza Taldeak fakultateko Kalitate Batzordeari eta Fakultateko Batzarrari helaraziko dio Kalitate Politikaren adierazpen hau bere egin dezan proposatuz.

Donostian, 2023ko urriaren 25ean

Onintza Odriozola Irizar  
Hobekuntzarako eta Gizarte  
Erantzukizunerako  
Dekanordea

Beñat Amenabar Perurena  
Dekanoa

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Batzarrak, 2023ko urriaren 24an egindako bilkuran, Dekanotza Taldeak aurkeztutako Kalitate Politikaren adierazpena onestea eta bere egitea erabaki zuen. Eta horrela jasota gera dadin, dokumentuari egindako eranskin hau sinatzen dut, Donostian, 2023ko urriaren 25ean.

Eider Oregui Gonzalez  
Idazkari Akademikoa

## Política de Calidad de la Facultad HEFA 2023-2025

Propuesta aprobada por la Comisión de Calidad (18/10/2023)

Propuesta aprobada por la Junta de la Facultad (24/10/2023)

---

En este documento se expone la Política de Calidad que la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología (HEFA) de la UPV/EHU quiere implementar en los próximos dos años. En concreto, se detallan la visión y el compromiso de la Facultad de HEFA con respecto a lo que pretende conseguir en la gestión de la calidad, la mejora y la innovación, en función de las competencias y recursos a su alcance. Se trata, en un primer momento, de una Política de Calidad diseñada por el Grupo Decanato pero que, posteriormente, fue aprobada por la Comisión de Calidad de la Facultad HEFA y la Junta de la Facultad, el 18 de octubre de 2023 y el 24 de octubre de 2023, respectivamente.

En el contexto del proceso de reforma de los estudios universitarios para adecuarlos al Espacio Europeo de Educación Superior, y asumiendo los marcos que establecen los documentos de los *Estatutos*<sup>4</sup> y el *Plan Estratégico 2022-2025*<sup>5</sup> de la UPV/EHU, así como el documento *Standards and guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)*<sup>6</sup> de la institución ENQA (European Association for Quality Assurance in Higher Education), la Facultad HEFA quiere expresar aquí su compromiso con su gestión de la calidad. En concreto, se parte de las siguientes determinaciones:

### Artículo 1 de los Estatutos de la UPV/EHU:

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) es una Institución de Derecho Público, al servicio de la sociedad, que goza de autonomía y está dotada de personalidad y capacidad jurídica y de patrimonio propio, para prestar, en el ámbito de su competencia, con el compromiso ineludible de calidad y excelencia, el servicio de la enseñanza superior mediante la docencia, la investigación, el estudio, la proyección cultural y universitaria, los procesos de gestión y los servicios que sustentan sus actividades. Su actividad se dirigirá a satisfacer las necesidades de la sociedad vasca así como las derivadas de su historia y de sus transformaciones socioeconómicas, políticas y culturales, difundiendo en ella los conocimientos de la cultura y la ciencia universal, prestando atención principal a la cultura y a la lengua vasca y ejerciendo su actividad cotidiana de manera sostenible económica, social y ambientalmente.

---

<sup>4</sup> [https://www.ehu.eus/documents/3026289/3045926/Estatutos\\_UPV\\_EHU.pdf](https://www.ehu.eus/documents/3026289/3045926/Estatutos_UPV_EHU.pdf)

<sup>5</sup> [https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU\\_PLAN+ESTRATEGICO\\_2022\\_2025.pdf/78d22bba-3249-527b-85d0-fa9b602ba368?t=1655464453319](https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGICO_2022_2025.pdf/78d22bba-3249-527b-85d0-fa9b602ba368?t=1655464453319)

<sup>6</sup> [https://www.engq.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish\\_by%20ANECA.pdf](https://www.engq.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish_by%20ANECA.pdf)

## **Plan estratégico de la UPV/EHU 2022-2025:**

### **Misión**

La UPV/EHU es la universidad pública vasca, comprometida con su cultura, con los retos sociales y con el desarrollo sostenible a través de la formación, la investigación, la transferencia de conocimiento y las alianzas locales y globales, en todas las ramas del saber.

### **Visión**

- La UPV/EHU proporciona a su alumnado una formación basada en la investigación, en el pensamiento crítico con método científico, e implicada con el desarrollo social sostenible. Su paso por la universidad contribuirá a su desarrollo intelectual y humano, y a su capacidad transformadora actuando de forma ética y creativa en un entorno cambiante y cada vez más exigente.
- La UPV/EHU aspira a potenciar su modelo investigador, orientado y comprometido a los nuevos retos sociales, culturales, económicos y ambientales, fomentando la colaboración transdisciplinar e internacional, así como la cooperación con el entorno socioeconómico, con vocación de liderazgo en la transformación de la sociedad a través del conocimiento.
- La UPV/EHU, como institución líder de investigación en Euskadi, se identifica y se visibiliza como aliada natural en los proyectos de I+D+i desarrollados en el territorio para afrontar los retos de la transición energética, la transición digital y la cohesión social.
- La UPV/EHU es una universidad enraizada en su entorno, abierta y permeable con el objetivo de generar un impacto bidireccional, que aspira a convertirse en modelo de referencia y de identificación para la sociedad vasca.

### **ESG - Parte 1: Criterios y directrices para el aseguramiento interno de la calidad**

Criterio 1.1 Política de aseguramiento de calidad. Las instituciones deben tener una política pública de aseguramiento de la calidad que forme parte de su gestión estratégica. Los grupos de interés internos deben desarrollar e implantar esta política mediante estructuras y procesos adecuados, implicando a los grupos de interés externos.

Teniendo en cuenta estos criterios, la Política de Calidad de la Facultad HEFA y, por tanto, la gestión de la calidad diaria de la Facultad, seguirá el rumbo marcado por estas cuatro líneas subyacentes:

1. Formación e investigación.
2. Responsabilidad social.
3. Mejora y desarrollo.
4. Personas.

## **1. Formación e investigación**

### **Objetivos:**

- Formar profesionales cualificados y personas responsables que se adapten a las necesidades de la sociedad vasca en los grados y postgrados ofertados en la Facultad HEFA.
- Promover una oferta mayoritariamente euskaldun y, a la vez, multilingüe, sostenible y de calidad de grados y posgrados.
- Potenciar la relación entre investigación y enseñanza, aumentando el uso de metodologías innovadoras en los procesos de enseñanza-aprendizaje.
- Diseñar programas de formación continua, abriendo cauces para dar respuesta a las nuevas necesidades y demandas que se están generando en el ámbito de la formación e investigación en diferentes ámbitos sociales.
- Apoyar proyectos de investigación y fomentar la cultura científica en HEFA, sobre todo con los nuevos investigadores e investigadoras y personas en formación.

## **2. Responsabilidad social**

### **Objetivos:**

- Promover políticas y prácticas a favor del desarrollo sostenible, inclusivo, la normalización del euskera y la sociedad plurilingüe, y la igualdad de oportunidades.
- Participar en redes académicas, sociales e institucionales y dar pasos en la relación con los agentes sociales para sistematizar las políticas de alianzas de HEFA.

## **3. Mejora y desarrollo**

### **Objetivos:**

- Desarrollar iniciativas y propuestas de mejora continua y/o innovación en todos los ámbitos de la facultad (organización, gestión, docencia e investigación).
- Ofrecer formación a las personas implicadas en temas de calidad e innovación y potenciar la participación de los miembros de la facultad.



- Iniciar un apoyo estructural desde el Equipo Decanal para la creación de espacios de trabajo en el ámbito de la innovación en las titulaciones de la Facultad.
- Adaptar las infraestructuras físicas y tecnológicas a las mejoras e innovaciones que realizamos en la facultad.
- Continuar unificando el sistema de gestión de los dos edificios que componen el HEFA y, en particular, integrar un sistema integrado de gestión en ambos edificios.
- Promover una gestión administrativa más ágil, cercana y transparente, desarrollando un modelo de gobernanza más participativo.

#### **4. Personas**

##### **Objetivos:**

- Conocer y tratar de satisfacer las necesidades y expectativas del alumnado, personal del PTGAS y personal docente/investigador.
- Apoyar al alumnado y al profesorado/personal investigador de HEFA en el desarrollo de su carrera académica (aprendizaje, docencia, investigación y gestión).
- Apoyar al personal del PTGAS en el desarrollo de su carrera profesional.

El equipo decanal remite esta declaración de Política de Calidad a la Comisión de Calidad y a la Junta de la Facultad con la propuesta de que la asuman y la ratifiquen.

En Donostia, a 25 de octubre de 2023

Onintza Odriozola Irizar  
Vicedecana de Desarrollo y  
Responsabilidad Social

Beñat Amenabar Perurena  
Decano

La junta de la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología, en la sesión celebrada el día 24 de octubre de 2023, aprobó y decidió ratificar la declaración de la Política de Calidad presentada por el Equipo Decanal. Y para que así conste, firmo este documento como anexo a la misma en Donostia-San Sebastián, a 25 de octubre de 2023.

Eider Oregui Gonzalez  
Secretaria Académica